

## DERECHOS Y OBLIGACIONES DE UN TRABAJADOR TRANSFRONTERIZO

Desde el momento que una persona viene a vivir a Francia, debe poner su documentación en regla. Para ello hay que seguir los pasos de los siguientes documentos:

### 1. Carnet de identidad con la dirección en Francia

Trámites:

⇒ **CONSULADO ESPAÑA EN BAYONA.**- 4, bab. 1 étage. (Frente a la Subprectura) Tfno.05.59.59.03.91 y 05.59.25.73.09

Inscribirse en el libro de matrícula de extranjeros. Para ello hay que aportar:

- DNI y pasaporte
- Justificante de residencia. Recibos EDF, GDF, AGUA, junto con escrituras de propiedad o contrato de alquiler.
- Libro de Familia + 1 Foto

Una vez inscrito, es decir en el mismo momento, solicitar:

- Certificado de residencia para la expedición del DNI
- 2 certificados de residencia para efectos oportunos. (Para presentar en la Seguridad Social y en Hacienda Foral de Gipuzkoa)

⇒ **COMISARIA DE POLICIA** en Irun, Plaza del ensanche esquina República Argentina de 9 a 2 de lunes a viernes, Tfno. 943.639.900 y en Donostia Plaza Pío XII, Gobierno Civil de 9 a 17,30 de lunes a Jueves y el viernes de 9 a 14, Tfno. 943.449.800

Acudir a solicitar el DNI con domicilio en Francia con la siguiente documentación:

- DNI
- 3 Fotografías
- Certificado de residencia para la expedición del DNI emitido por el consulado.

## MUGALDEKO LANGILEEN ESKUBIDE eta BETEBEHARRAK

Frantziara bizitzera etortzen diren momentutik, pertsonak bere dokumentuak behar bezala eguneratu behar dituzte. Horretarako, honako urrats hauek segitu behar dira.

### 1. Nortasun agiria Frantziako helbidearekin

Izapideak:

⇒ **ESPAINIAKO KONTSULATUA BAIONAN**- BAB-ko etorbidea, 4 1. solairua (Suprefeturaren parean). Tel: 05.59.59.03.91 eta 05.59.25.73.09

Atzerrian bizi direnen matrikula-liburuan izena eman behar da. Horretarako, honako dokumentu hauek behar dira:

- NAN eta pasaportea
- Bizileku egiaztagiria. Ur, argi edo gas fakturak gehi etxebizitzaren jabetza-akta edo alokairu-kontratua.
- Familia-Liburuxka + Argazki 1

Izena eman eta berehala, honako hau eskatu:

- NANaren bidaltzeko bizileku-agiria
- 2 bizileku-agiri beharrezko xedeetarako. (Gizarte Segurantzian eta Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkezteko)

⇒ **POLIZIA-ETXEA** Irunen, Zabaltza plazan, Argentinako Errepublika kaleko izkinean. Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara. Tel: 943.639.900 edo Donostian, Pio XII plazan, Gobernu Zibilean. Astelehenetik ostegunera 9:00etatik 17:30era eta ostiralean 9:00etatik 14:00etara. Tel: 943.449.800

Frantziako helbidea dakarren NANA eskatzera joan behar da eta honako dokumentu hauek eraman:

- NAN
- 3 argazki
- Kantsulatuak eman NANaren bidaltzeko bizileku-agiria.

## 2. Seguridad social:

Todos los trabajadores fronterizos tienen derecho a la seguridad social de los dos países, mientras que los miembros de sus familias (no activos), solo tienen derecho a la seguridad social en el país de residencia.

Al no tener un domicilio fiscal en España, el trabajador acudirá al médico más cercano a su centro de trabajo o al servicio de urgencias. Los miembros de sus familias tienen también derecho a este servicio (urgencias). Trámites:

⇒ **SEGURIDAD SOCIAL ESPAÑOLA** en Irun, Bartolomé de Urdinso 2, Tfno. 943.619.770 y en Donostia, Plaza Pío XII, 2 de 9 a 14 de lunes a viernes, Tfno. 943.472.661.

Acudir a solicitar el formulario E-106 con la siguiente documentación:

- Certificado de residencia para efectos oportunos
- DNI o documento acreditativo de identidad

⇒ **SEGURIDAD SOCIAL FRANCESA** Caisse Primaire d'Assurance Maladie (68-72 Allées Marines, 64111 BAYONNE) Tfno. 36.46  
o en la Agencia de St Jean de Luz (22 Bld Victor Hugo) de lunes a viernes de 08.00 a 16.30

Acudir con la siguiente documentación:

- el E106 en 2 ejemplares
- una partida de nacimiento (original+plurilingüe)
- un justificante de domicilio (factura reciente de luz...)
- sus datos bancarios (RIB de la cuenta en Francia)
- Para una familia, la copia del libro de familia y para los hijos de más de 16 años, un certificado de escolaridad.

## 2. Gizarte Segurantzza

Mugaldeko langile guztiak bi estatuetakoz Gizarte Segurantzza erabiltzeko eskubidea dute. Beren senideek (lan egiten ez dutenak) aldiz, bizi diren herrialdeko Gizarte Segurantzza baizik ez dute erabiltzen ahal.

Espanian zerga-egoitzarik ez duenez, langilea bere lantokitik hurbilen den sendagilearengana edo larrialdi zerbitzura joko du. Bere senideek ere erabil dezakete larrialdi zerbitzua. Izapideak:

⇒ **ESPAINIAKO GIZARTE SEGURANTZA** Irunen, Bartolome de Urdinso 2. Tel: 943.619.770 edo Donostian, Pio XII plaza, 2. Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara. Tel: 943.472.661.

E106 inprimakia eskatzera joan behar da eta honako dokumentu hauek eraman:

- Beharrezko xedeetarako bizileku-agiria
- NAN edo nortasun-egiaztagiria

⇒ **FRANTZIAKO GIZARTE SEGURANTZA** Caisse Primaire d'Assurance Maladie (68-72 Allées Marines, 64111 BAIONA) – Tel: 36.46 edo Donibane-Lohizuneko Laguntza Sozialerako Herriko Zentroan (Victor Hugo etorbidea, 22) dagoen harrera-zerbitzua, astelehenetik ostiralera 8:00etatik 16:30era.

Honako dokumentu hauekin joan behar da:

- E106 inprimakia 2 aletan
- jaiotza-agiria (jatorrizko dokumentua+Europako dokumentu eleaniztuna)
- bizileku-egiaztagiria (argiaren duela gutxiko faktura...)
- banketxe datuak (Frantziako kontuaren datuak - RIB)
- familia batentzat, familia-liburuxkaren kopia eta 16 urtetik gorako seme/alabentzat, eskola-ziurtagiri bat.

### 3. Fiscalidad

Los consumos de luz, agua y gas son los que determinan la residencia de una persona (no existe empadronamiento en Francia), por lo que si los consumos son los habituales de una vivienda en la que se habita todo el año, el IMPUESTO DE RENTA, hay que abonarlo en el país de residencia (FRANCIA). Tienen obligación de presentarlo todas las personas residentes, y se distinguen 3 tipos de residentes:

	Trabajador por cuenta ajena (1)	Funcionario o dinero publico	Autónomo o Liberal
ESPAÑA		Declaración	Declaración
FRANCIA	Declaración	Declaración informativa	Declaración informativa

\*Declaración: se presenta declaración de renta y **sí** se paga el impuesto

\*Declaración informativa: se presenta declaración de renta, pero **no** se paga el impuesto.

#### IMPRESOS

- Trabajador por cuenta ajena: mod. 2042
- Funcionario o dinero publico: mod. 2042 y 2047
- Autónomo o profesión liberal: mod.2042, 2047 y 2042 C

#### (1) SOLO PARA TRABAJADORES POR CUENTA AJENA NO FUNCIONARIOS

⇒ **HACIENDA FRANCESA**.- centre des impôts, 17 avenue Charles Floquet –de 8:45 a 12 y de 13:45 a 16 Biarritz, Tfno. 05.59.41.37.04

- ⇒ Acudir con la siguiente documentación:
- Impreso de trabajador fronterizo (os lo facilitamos en el Ayuntamiento) cumplimentado por la empresa
  - Justificante de residencia. Recibos EDF, GDF, AGUA, junto con escrituras de propiedad o contrato de alquiler.
  - Certificado de empadronamiento

### 3. Zergak

Argi, ur eta gas kontsumoek dute pertsona baten bizilekua xedatzen (ez dago erroldatzerik Frantzian). Horren ondorioz, kontsumo horiek urte osoan bizi den etxebizitza batenak badira, ERRENTAREN GAINEKO ZERGA bizileku-herrialdean ordaindu behar da (hots FRANTZIAN). Frantzian bizi diren pertsona guztiek aurkeztu behar dute, eta badira hiru kasu:

	Soldatupeko langilea (1)	Funtzionarioa edo diru publikoa	Autonomoa edo liberala
ESPAINIA		Aitorpena	Aitorpena
FRANTZIA	Aitorpena	Aitorpen informatiboa	Aitorpen informatiboa

\*Aitorpena: errenta-aitorpena aurkezten da eta errentaren gaineko zerga ordaindu egiten da.

\*Aitorpen informatiboa: errenta-aitorpena aurkezten da baina errentaren gaineko zerga ez da ordaindu behar.

#### INPRIMAKIAK

- Soldatapeko langilea: 2042 modelo
- Funtzionarioa edo diru publikoa: 2042 eta 2047 modeloak
- Autonomoa edo liberala: 2042, 2047 eta 2042 C modeloak

#### (1) FUNTZIONARIOAK EZ DIREN SOLDATAPEKO LANGILEENTZAT BAKARRIK

⇒ **FRANTZIAKO OGASUNA** – Zerga-etxea, Charles Floquet etorbidea, 17, Biarritz – 8:45etik 12:00etara eta 13:45etik 16:00etara. Tel: 05.59.41.37.04

Honako dokumentu hauekin joan behar da:

- Enpresak beteriko mugaldeko langileentzako inprimakia (Herriko Etxean ematen dizuegu)
- Bizileku-egiaztagiria. Ur, argi edo gas fakturak gehi jabetza-akta edo alokairu-kontratua.
- Erroldatze-ziurtagiria

⇒ **HACIENDA FORAL DE GIPUZKOA**  
en Irun, c/Estación, 7, y en Donostia  
Paseo Errotaburu, 2 de lunes a viernes de  
8,30 a 14,30. Tfno único 902.100.040.

Acudir con la siguiente documentación:

- Impreso 002 (se compra en los estancos)
- Documento de trabajador fronterizo sellado por las Autoridades francesas.
- DNI con el domicilio en Francia

#### **4. Matriculación del vehículo en Francia:**

⇒ Solicitar a la fábrica del coche un certificado de Homologación europeo. (Importe aprox. 100€)

⇒ Acudir al Hotel des Impôts, 17 ave Charles Floquet en BIARRITZ donde hay que rellenar un cuestionario. Documentos que hay que aportar:

- Tarjeta de Inspección Técnica del Vehículo
- Permiso de Circulación

(Son las dos tarjetas de color verde que poseen todos los vehículos españoles. Es gratuito)

⇒ Pasar la ITV en Francia. (En la carretera entre Behobia y Hendaye hay 2 empresas que pasan la ITV. Importe aprox. 50€).

⇒ Acudir a la Sous-prefecture en BAYONNE, 2 Ave Allées Marines. Hay que aportar:

- Certificado de homologación.
- Cuestionario del Hotel des Impôts
- ITV
- Fotocopia del DNI
- Tarjeta de Inspección Técnica del Vehículo
- Permiso de Circulación

Se quedan con la documentación que aportas y te entregan nueva con el número de la matrícula.

⇒ **GIPUZKOAKO FORU OGASUNA**  
Irunen, Geltoki karrika, 7 edo Donostian  
Errotaburu pasealekua, 2. Astelehenetik  
ostiralera 8:30etik 14:30era. Telefono  
bakarra: 902.100.040.

Honako dokumentu hauekin joan behar da:

- 002 inprimakia (tabako-dendetan erosten da)
- Frantziako zerga-etxeko agintariak zigilatu mugaldeko langileentzako inprimakia.
- NAN Frantziako helbidearekin

#### **4. Ibilgailuaren matrikulazioa Frantzian**

⇒ Autoaren fabrikari Europako homologazio-ziurtagiria eskatu. (100€ inguru balio du)

⇒ Biarritzeko Zerga-etxera joan (Charles Floquet etorbidea, 17) eta bertan, galdetgia bete. Eraman behar diren dokumentuak:

- Ibilgailuaren Ikuskapen Teknikoaren txartela
- Zirkulazio-baimena

(Espainiako ibilgailu guztiek dauzkaten bi txartel berdeak dira horiek. Dohainik da)

⇒ Ikuskapen Teknikoa egin Frantzian. (Pausu eta Hendaiaren arteko bidean, Ikuskapen Teknikoa egiten duten 2 enpresa daude. 50€ inguru balio du).

⇒ BAIONAko Suprefeturara joan (Allées Marines etorbidea, 2) Eraman behar diren dokumentuak:

- Homologazio-ziurtagiria
- Zerga-etxeko galdetgia
- Ikuskapen Teknikoa
- NANaren fotokopia
- Ibilgailuaren Ikuskapen Teknikoaren txartela
- Zirkulazio-baimena

Eramaten dituzun dokumentuak atxikitzen dituzte eta berria ematen dizute, matrikulazio-bakiarekin.

- ⇒ Acudir a un taller Francés a colocar las placas. (Importe aprox. 30€)
- ⇒ Con la Carte Grise (documentación Francesa del vehículo) ir a Tráfico en Donostia, Plaza Julio Caro Baroja Bajo, (en Bentaberri) a solicitar la baja del vehículo. (Importe aproximado 10€).
- ⇒ Acudir al Ayuntamiento donde se encontraba domiciliado el vehículo con la baja cursada por tráfico para darlo de baja en los correspondientes padrones y anular el Impuesto de Circulación de Vehículos para años posteriores.

**RECOMENDACIÓN:** Pasar en primer lugar la ITV en Hendaya, puesto que si no se cumple este requisito, no se podrá matricular el coche.

## 5. Paro

El trabajador fronterizo tiene derecho al subsidio de paro en el país de residencia. Trámites:

- ⇒ **INEM.-** Donostia. Oquendo, 16-5 planta. Desempleo Residentes en el Extranjero. Documentación a aportar:
  - Certificado de empresa
  - Fotocopia causa del desempleo
  - Fotocopia acto de conciliación
  - Fotocopia DNI
  - Fotocopia cartilla Seguridad Social
  - Fotocopia TC1 y TC2 de los 6 últimos meses
  - Fotocopia contrato
  - Fotocopia parte de alta y baja de la Seguridad Social
- ⇒ **ASSEDIC.-** Biarritz. Tel: 39.49 Llamar por teléfono, envían documentación por correo que hay que rellenar y presentarte con la misma en el ASSEDIC en el plazo marcado por ellos. 8 Ter Rue Borde d'Andre. (Rotonda del aeropuerto de Biarritz, tomar la carretera de la izquierda, a unos 50 m a la izda.).

- ⇒ Frantziako garaje batetara joan, matrikula-plaken ezartzera. (30€ inguru balio du)
- ⇒ Karta Grisarekin (ibilgailuaren Frantziako dokumentazioa), Gipuzkoako Zirkulazio Zuzendaritzara joan (Julio Caro Baroja plaza, Donostia – Bentaberrin) ibilgailuaren baja eskatzera (10€ inguru balio du).
- ⇒ Ibilgailua helbideratua zen Udaletxera joan, Zirkulazio Zuzendaritzak igorri bajarekin, erroldetan ere baja hartzeko eta hurrengo urteetako Zirkulazio zerga ere ezeztatzeko.

**AHOLKUA:** Lehenik Hendaian Ikuskapen Teknikoa pasatu, zeren eta baldintza hori ez bada betetzen, ezin izanen baita autoa matrikulatu.

## 5 Langabezia

Mugaldeko langileak langabezi laguntzarako eskubidea du bizi den herrialdean. Izapideak:

- ⇒ **INEM** – Okendo 16, Donostia – 5. solairua – Atzerrian bizi direnen Langabezia. Eraman behar diren dokumentuak:
  - Enpresaren ziurtagiria
  - Langabeziaren kausaren fotokopia
  - Adiskidetze-egintzaren fotokopia
  - NANaren fotokopia
  - Gizarte Segurantzako txartelaren fotokopia
  - Azken 6 hilabeteetako TC1 eta TC2 inprimakien fotokopia
  - Kontratuaren fotokopia
  - Gizarte Segurantzaren alta eta bajako partearen fotokopia
- ⇒ **ASSEDIC** – Biarritz - Tel: 39.49. Telefonoz deitu, postaz bidaltzen dituzte dokumentuak. Bete behar dira eta horiekin ASSEDIC-era joan, beraiek ezarri epean. Borde d'Andre karrika, 8 ter. (Biarritzeko aireportuko biribilgunean, ezkerreko bidea hartu, 50 metrotara ezkerrean).

#### Documentación a aportar:

- Original INEM
- domicilio en Francia. Ejemplo, facturas EDF del último año
- Fotocopia causa del desempleo
- Fotocopia 12 últimas nóminas
- Fotocopia DNI (con dirección en Francia)
- RIB Bancario
- Fotocopia documento de la Seguridad Social francesa
- Déclaration sur l'honneur de hacer el trayecto Francia-España cada día o al menos una vez a la semana
- Fotocopia de las declaraciones de impuestos franceses, 3 últimos años.

⇒ **ANPE.-** San Juan de Luz. 11 calle Ferme Dai Baita .

- Entregar relleno el boletín que le habrán dado en ASSEDIC, en el plazo de un mes.

#### Eraman behar diren dokumentuak:

- INEM-en emandako dokumentu originala
- Frantziako helbide-egiaztagiria. Adibidez, azken urteko argi fakturak.
- Langabeziaren kausaren fotokopia
- Azken 12 soldata-orrien fotokopia
- NANaren fotokopia (Frantziako helbidearekin)
- Banku kontuaren datuak (RIB)
- Frantziako Gizarte Segurantzaren dokumentuaren fotokopia
- Frantzia eta Espainiaren arteko joan-etorria egunero edo gutxienez astean behin egiten duzunaren adierazpen idatzia.
- Azken 3 urteetako Frantziako errenta-aitorpenen fotokopia.

⇒ **Enplegu-Agentzia (ANPE)** – Donibane Lohizune. Dai-Baita baserria karrika, 11.

- ASSEDIC-en jasotako buletina bete eta bertan eman hilabete baten epean.